

Herria, herrialdea eta "provincia"

Zeruko Argia, 681. zk., 1976-03-28: 5.

Fraga-k telebixtan esana: "provincia", errialdea edo errejioa baino lehen sortua dela.

Eta, gainera, adibide bat jarri nahi, eta Gipuzkoa jarri.

Bertsotan esateko: umekeria ez danez, gaiztakeria duk hori.

Gauza bat da erromatarrek bere menpean-edo zituzten lurraldeei latinez eman zien *Provincia* izena, Kristo aurretikoa, beraz; eta bestea: 1833-go azaroaren 30an *Decreto Real* baten bide makurrez España-k (eta France-n grina berekin) zatiketako puskei eman zien izena.

España-ren zatiketa honek zer hixtori-funtsa izan du?

Javier de Burgos-ek asmatu zuena: egun sentitik iluntzeraino karabinero batek egin zezakean zaldi-bidea behar zen kontuan artu kapitaletik zatiketa berriko urrutien geratzen zen erria "provincia"-n sartzeko.

Hau duk hixtoria!

Ba neurri arbitrario honekin egina izan zen Espaiñan "provincia" zatiketa.

Tokitan zegoen 1833 hontan Gipuzkoa-ko Probintzia!

Ipuzkoa, Lipuzkoa eta Gipuzkoa, aspaldi-aspaldiko erromatarren antzeko esan-nahiarekin emandako lurralde-izena eta Tituloa zuen, beste batzuk Condado edo Principado edo Señorío zuten neurrikoa, garai hartan España-ko eguzki berotan Holanda-koak, eta Ameriketako Venezuela eta Trinidad, Probintziak izan ziran bezala; Ameriketako bertan, Nueva Granada, Santa Fe, México eta Perú Nafarroa-ren antzeko Virreinato izan ziren era berean.

Euskalerrria, izkuntzak eta toponimiak ondo erakusten duen bezala, erri bat izan da Prehistoriatik; X-garren gizaldian, "español" itza asmatua izan zen aurretik (ia XIII-garrenean sortu zen!) Nafarroa-ko erreinoan bilduta aurkitzen ditugu euskal errialdeak; eta inongo eskualdeak izan badira gure erriko eskualdeak, Euskalerrrikoak eta Nafarroakoak izan dira.

Erria, erri; Probintzia bezalako eskualdea, eskualde; eta jauntxokeria nabarmenez, indarrez, egindako "provincia", berriz, orain ezagutzen dugun bidegabekeria hau.